




GOGOAN DAUKAT EZ DU ASPALDI



Doinuaren sortzailea: Jose Luis Lekunberri.

Bertso honen egilea: Aitor Sarasua (1967 Aretxabaleta, Gipuzkoa - 2018 Itsasu, Lapurdi).

Bertsoaren berri

“Ursus Tibetanus” sortako lehen bertsoa da. Tibeteko hartza baten begiradatik idatzitako sorta da, Himalaiako mendi-gailurrak konkistatzeko gizakien jarreraz edo “himalaismoaz”.

Kantua “Fauna txiki bat bertso berritan” diskoan atera zuten Aitor eta Jon Sarasua anaiek (Elkar, 1995).

Gogoan daukat ez du aspaldi hartz bihurrian **lilura**
izerdi hotzez hurbiltzen ginen Buru ilun **lurruntsura**
hainbeste maite genuen tontor sakratuaren **itsura**
hurbil ta urrun, haizez gordea, begira beti **zerura**
gizonik inoiz iritsi ez zen toki bakarra zen **hura**.

